

ERMUKO UDALEKO EAJ-PNV, EH BILDU ETA ELKARREKIN ERMUA EN UDAL TALDEEN MOZIOA

Aipatutako Udal Taldeak Osoko Bilkuran onesteko proposatzen dugu ondorengo Manifestua

Askatasuna/Konponbide politikoaren alde

Manifestu bateratua EAJ-PNV, EHBILDU eta ELKARREKIN ERMUA, Gure Eskuko manifestua

AYUNTAMIENTO DE ERMUA/ERMUKO UDALA
REGISTRO GENERAL/ERREGISTRO OROKORRA
ENTRADA/SARRERA
Fecha/Data 27-10-17 09:10:19
Num./Zk. 8.817

Lehenik eta behin, gure desadostasun osoa adierazi nahi diogu Kataluniako buruzagi sozial eta politiko subiranistak zigortzen dituen epaiari. Zintzotasun osoz, bidegabekeria itzela deritzogu Espainiako Auzitegi Gorenaren epaiari. Eta, gainera, uste osoa dugu epai honek ondorio larriak dakartzala oinarritzko eskubide eta askatasunentzat.

Prozesu judiziala bera ere ez da justua izan; aitzitik, arbitrariotasunez beteta izan da, funtsik gabeko akusazioetan oinarritu da, eta behin-behineko espetxealdiarekin presoan eskubideak urratu dira, Nazio Batuen Erakundeko Atxiloaldi Arbitrarioei buruzko lan taldeak salatu duenez. Hain zuzen, presoak askatzeko talde honek egindako eskaerari muzin egin zaio.

Bidegabekeria honen aurrean, preso guztien askatasuna aldarrikatzen dugu. Jordi Cuixart, Oriol Junqueras, Jordi Sánchez, Carme Forcadell, Jordi Turull, Raül Romeva, Dolors Bassa, Josep Rull eta Joaquim Forn aske nahi zaituztegu. Epai honen ondorio larriak zuzenean pairatu behar dituztenei eta haien senideei gure elkartasun osoa adierazi nahi diegu.

Zigor epai honetan, kezkaz antzematen ditugu manifestazio eskubidearen, adierazpen askatasunaren, protestarako eskubidearen, bozkatzeko eskubidearen eta autodeterminazio eskubidearen edota erabakitze eskubidearen kriminalizazio zantzuak. Erabat onartezina da. Demokrazian ezin dira kriminalizatu mobilizazio demokratiko eta baketsuak, ezta disidentzia politikoa ere. Demokrazian, bozkatea ezin da delitu izan, konponbidearen parte baizik.

Salbuespenezko bide judizial, juridiko edo prozesalak alde batera utzi behar dira. Elkarrizketa eta negoziazio politikoari ekin behar zaio auzi hau bideratzeko. Konponbide demokratikoaren alde egin behar da, Kataluniako herritarrek euren etorkizuna libre eta demokratikoki erabaki ahal izatea aintzat hartuta. Premiazko eginkizuna da.

Gure ustez, elkartasuna, askatasun demokratikoen eta eskubide zibil eta politikoen defentsa, bide errepresiboekiko arbuioa, eta herritarrek demokratikoki adierazitako borondatea oinarri duen konponbide politikoaren aldeko jarrera, gure gizartearen gehiengo zabalak partekatzen dituen oinarriak dira. Uneotan, ahalegin bereziz defendatu eta sendotu beharrekoak.

Egoeraren larritasunak interpelatu egiten gaitu demokrazia, justizia eta askatasunak maite ditugun guztiok, gure aukera ideologikoetatik harago.

Ermuan, 2019ko urriaren 28an

Jol Gisasola
Ermuko Eaj-Pnvko
bozeramalea

Paul Iarza
Ermuko Eh Bilduko
bozeramalea

Julen Dominguez
Ermuko Elkarrekin
Podemoseko bozeramalea

MOCIÓN DE LOS GRUPOS MUNICIPAL DE EAJ-PNV, EH BILDU Y ELKARREKIN ERMUA EN EL AYUNTAMIENTO DE ERMUA.

Los Grupos Políticos mencionados proponemos para su aprobación en pleno el siguiente Manifiesto

Libertad/Por una solución política

Manifiesto conjunto de EAJ-PNV, EHBILDU y ELKARREKIN ERMUA, manifiesto de GURE ESKU.

En primer lugar, manifestamos nuestro profundo desacuerdo con la sentencia del Tribunal Supremo español que condena a las y los líderes sociales y políticos catalanes. Creemos, sinceramente, que se trata de una enorme injusticia. Y, además, tenemos el convencimiento que esta sentencia trae consigo graves consecuencias con respecto a los derechos fundamentales y las libertades democráticas.

Queremos recordar que el proceso judicial no ha sido justo, sino que ha estado repleto de arbitrariedades, se ha basado en acusaciones sin fundamento, y con el mantenimiento de la prisión preventiva se han vulnerado los derechos fundamentales de las personas encausadas encarceladas, tal y como lo ha denunciado el grupo de trabajo sobre Detenciones Arbitrarias de la ONU, cuyas resoluciones pidiendo su puesta en libertad han sido desatendidas.

Ante esta injusticia, reivindicamos la libertad de todas las personas presas en esta causa. Jordi Cuixart, Oriol Junqueras, Jordi Sánchez, Carme Forcadell, Jordi Turull, Raül Romeva, Dolors Bassa, Josep Rull y Joaquim Forn os queremos libres. Deseamos mostrar nuestra solidaridad con quienes padecen las graves consecuencias de esta injusta sentencia y con sus familiares.

En esta sentencia condenatoria, observamos con preocupación signos de criminalización del derecho de manifestación, de la libertad de expresión, del derecho a la protesta, del derecho a votar y del derecho de autodeterminación y el derecho a decidir. Es totalmente inaceptable. En democracia, no se pueden criminalizar ni las movilizaciones democráticas y pacíficas, ni tampoco la disidencia política. En democracia, votar no puede ser delito; sino parte de la solución.

Es hora de dejar de lado las vías de excepción judiciales y represivas. Es momento de acometer a través del diálogo una negociación política para encauzar y resolver la cuestión catalana. Hay que apostar por una solución democrática que contemple hacer posible la decisión libre y democrática de la ciudadanía catalana sobre su futuro. Es una tarea urgente.

La solidaridad, la defensa de las libertades democráticas y derechos civiles y políticos, el rechazo a las vías represivas, y la actitud en favor de la solución política basada en la voluntad ciudadana expresada de manera democrática, conforman, a nuestro entender, una base que comparte la gran mayoría de nuestra sociedad; una base que debemos defender y fortalecer, hoy más que nunca.

La gravedad de la situación nos interpela a todas las personas que estimamos la democracia, la justicia y las libertades, con independencia de nuestras opciones ideológicas

En Ermua, a 28 de octubre de 2019

Jol Gisasola
Portavoz
Eaj-Pnv Ermua

Paul Iarza
portavoz
Eh Bildu Ermua

Julen Dominguez
Portavoz
Elkarrekin Podemos Ermua